



AGENDA 21EKO FORO-LANTALDEAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21

Eguna: 2008/04/24	Ordua: 17:30an	Lekua: Legazpiko udaletxea
----------------------	-------------------	-------------------------------

ESKOLAKO AGENDA 21eko Legazpiko ikastetxeetako ikasleen ordezkariak Forora etorri dira **HONDAKINAK ETA KONTSUMOA** gaiei buruz egindako hausnarketa, proposamenak eta konpromisoak herritarrei aurkezteko asmoz.



34 pertsona elkartu gara. Horien artean ikasleak, gurasoak, irakasleak, herritarrak... egon dira.

Alkateak ongietorria eman die bertaratukoei eta, sarrera txiki bat egin ondoren, hitza ikasleei eman die.

Ondoren ikasleek alkateari emandako agiria jasotzen dugu:

2007-2008 ikasturtean, Legazpik jarraipena eman dio Eskolako Agenda 21 proiektuari. Udalak eta eskolek sinatutako konpromisoa berrituz, eta iraunkortasunaren alde lan egiteko asmoz, ikasturte honetan "**Kontsumoa eta Hondakinak**" gaia landu dugu. Bestalde, udal teknikariei esker, **Mugikortasun Plana** ere ezagutu dugu eta iradokizunak luzatu ditugu.

Hiru ardatz nagusi landu ditugu Eskolako Agenda 21 proiektuan:

- **Ikastetxeko kudeaketaren hobekuntza** (*diagnosia eta eskola hobetzeko plana eginez*)
- **Curriculumaren azterketa** (*irakasleek diziplina desberdinetan gaiaren trataera aztertu dute*)
- **Komunitatearen partaidetza** (*herria ere hobetzeko prest gaudelako*)



Gure herrian 1004 ume eta gazte murgildu gara proiektuan eta hauek dira herri mailan landu ditugun arloak:

Haur Hezkuntzakoak- Hondakin bakoitza zein ontzira bota landu dugu, baita parkean edo plazan hondakinen egoera aztertu ere.

Lehen Hezkuntzako 1. ziklokoak- Gabonak ondoren herriko edukiontzien egoera aztertu genuen eta jostailuen trukaketa egin dugu eskolan.

Lehen Hezkuntzako 2. ziklokoak- Inkesten bidez etxean eta herrian hondakin organikoekin zer gertatzen den aztertu dugu eta baita kontsumo ohiturak ere.

Lehen Hezkuntzako 3. ziklokoak- jaiak eta festak ahalik eta ekologikoenak nola antolatu aztertu dugu.

DBH-ko 1. ziklokoak- Erosketa ohiturak eta saltoki desberdinak aztertu eta inkestak dendetan egin ditugu.

DBH-ko 2. ziklokoak- Erosteko beharrak aztertu eta arlo desberdinetan publizitateak duen eragina jaso dugu inkesten bidez.

Batxilergoak- Herriko enpresen kontsumo eta hondakinei buruzko jarrerak aztertu ditugu inkesten bidez.



AGENDA 21EKO FORO-LANTALDEAREN AKTA Legazpiko Agenda 21

Eguna:
2008/04/24

Ordua:
17:30an

Lekua:
Legazpiko udaletxea

Herriaren diagnostia egin ondoren Udal Batzar honetara ekartzen ditugu lortutako emaitzak:

ONDORIO NAGUSIAK

SALTOKIEI DAGOKIENEZ ...

- Produktuak era estrategikoan jartzen dituzte gehiago kontsumitzeko.
- Behar ez ditugun produktuak askotan erosten ditugu.
- Poltsa asko erabiltzen da.
- Produktuek bilgarri asko dute.
- Askotan behar dena baino gehiago saltzen da.

HONDAKINAK HERRIAN

- Supermerkatu, arrandegi, jatetxeetan... inkestatutako denak, hondakinak sailkatzeko prest daude.
- Hondakinak edozein lekutan uzten ditugu.
- Hondakin organikoak tratatzeko modurik egokiena konpostaje-planta dela uste dugu. Usain txarrik sortzen ez delako, sortzen den gasarekin energia eta konposta lortzen delako eta hondakin batzuk berreskura daitezkeelako, adibidez, plastikoa, papera...

PUBLIZITATEARI DAGOKIONEZ

- Publizitateak kontsumismora bultzatzen gaitu. Adib: jostailu gehiegi dugu.
- Egoera idealizatua aurkezten du, askotan edertasuna erabiliz.
- Gehiegi kontsumitzen dugu eta horrek arazoak sortzen ditu, adib: zabor gehiegi sortzea ...

ENPRESEI INKESTAK

- Legazpiko enpresek behar duten materiala atzerritik ekartzen dute.
- Ekoizleak diren enpresak kanpoan ematen dute zerbitzua.
- Gehiengoek onartzen dute kutsadura sortzen dutela.
- Arazoa konpontzeko denen inplikazioa beharrezkoa dela diote.
- Batzuk bertan saltzeko nahiz gutxiago kutsatzeko behar den teknologiantzat, diru laguntzak eskatzen dituzte.

Ondorioak aztertuz, zuen aurrean herria hobetzeko asmoz hurrengo konpromisoak hartu nahi ditugu guretzako garrantzitsuenak direnetatik hasiz:

KONPROMISOAK

- Produktu ekologikoak ezagutu eta erosten saiatuko gara.
- Behar duguna bakarrik erosi behar dugu eta kapritxozko erosketak murrizten saiatuko gara.
- Produktuen prezioak konparatuko ditugu.
- Erosketak egiteko etxeak poltsak edo motxilak eramango ditugu.
- Herriko dendetan erosten saiatuko gara.
- Iragarkien aurrean kritikoak izango gara.
- Bilgarri gutxien dituzten produktuak erosi ditugu.
- Opariak paperik gabe eskatuko ditugu.
- Botilako ura edan ordez iturriko ura erabiliko dugu.
- Berrerabil daitezkeen ontziak aukeratuko ditugu.
- Jostailu gutxiago eskatuko dugu.





AGENDA 21EKO FORO-LANTALDEAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21

Eguna: 2008/04/24	Ordua: 17:30an	Lekua: Legazpiko udaletxea
----------------------	-------------------	-------------------------------

Eta herritarroi ere, proposamen batzuk ekartzen dizkizuegu:

PROPOSAMENAK HERRITARREI

- Erosketak egiterakoan etxeko poltsa eraman.
- Behar dena bakarrik erosi.
- Markei inportantzia gutxiago eman.
- Soberan dauzkagun jostailuak trukatu.
- Ontzi handiak erosi txikiak beharrean.
- Bilgarri gutxien dituzten produktuak erosi.
- Jostailu kaxak berrerabili.
- Berrerabili daitezkeen gauzak erosi.

Bukatzeko, hona hemen Udalari egiten dizkiogun proposamenak:

PROPOSAMENAK UDALARI

- Kanpaina bat egin herritarrei zuzendua behar dutena bakarrik erosteko.
- Publizitatea mugatzeko arauak jarri.
- Azoka toki itxi batean jartzea.
- Produktu ekologiko eta bidezko merkataritzako dendak bultzatzea.
- Dendei honako gomendioa luzatu: banatzen dituzten poltsei prezioa jartzea.



**Zuen erantzun idatziaren zain izango gara.
Eskerrik asko herriko ume eta gazte guztion partetik.**

Azalpenarekin bukatu ondoren, eztabaida sortu da hainbat gairi buruz: produktu ekologikoak, marken presentzia, hartutako konpromisoen jarraipena nola egin, jaiak, kirola,... eta gai guzti horien gaineko hausnarketa egin da.

Alkateak eskerrak eman dizkie Mugikortasun Iraunkorraren Planari aurkeztu dizkioten proposamenak direla eta.

Bukatzeko, alkateak egindako proposamenak eskertu egin dizkie ikasleei eta zorionak eman dizkie egin duten lan sakonagatik.

Aztertuko duela esan du eta laster erantzuna emango diela.